

Ebazpena: R 23/2022

Espedientea: 2/2015 eta 27/2016.

Gasteizen, 2022ko maiatzaren 6an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landin eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekin (aurrerantzean ZAEA) planteatutako gatazkei buruz, zeinen helburua baita zehaztea POSSL zergapekoaren telelan-araubideko langileen 2010etik 2013ra bitarteko lan pertsonalagatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena. Gatazka horiek Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen dira, 2/2015 eta 27/2016 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- POSSL Bilbon (Bizkaia) egoitza fiskala duen enpresa bat da, programazioan, aholkularitzan eta informatikarekin lotutako beste jarduera batzuetan diharduena.

Bere jarduera egiteko lantoki bakarra du Bilbon, eta horri atxikita daude langile guztiak.

Hala ere, langileek telelan-erregimenean ematen dizkiote zerbitzuak enpresari, Bilboko zerbitzari eta ekipamenduetara konektatuta.

2.- Langileen atxikipen guztiak Bizkaiko Foru Aldundiari sartu zaizkio.

3.- ZAEAk ikuskapen-prozedura bat garatu zuen 2010. eta 2011. urteetako lan pertsonalaren etekinengatiko atxikipenei dagokienez, eta amaieran txosten bat egin zuen, non adierazten baitzuen berari zegozkiola egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko probintzietan zuten langileen atxikipenak (13 langile 2010ean eta 12 langile 2011n).

4.- BFAk inhibitzeko errekerimendua egin zion ZAEARI, ikuskapen-jarduera egiteko eskumenik ez zuela adieraziz, baina ZAEAk eskumena bazuela berretsi zuen.

5.- Azkenik, 2015eko urtarrilaren 19an, 2/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazka aurkeztu zuen BFAk Arbitraje Batzordean.

6.- 2012. eta 2013. urteetako lan pertsonalagatiko atxikipenen inguruan ZAEAk beste ikuskapen-prozedura bat abiarazi izanak, inhibitzeko errekerimendua egin eta eskumena berretsi ondoren, 2016ko ekainaren 2an BFAk 27/2016 gatazka planteatzea eragin zuen.

7.- Arbitraje Batzordeak bi gatazkak metatzea erabaki zuen, 2021eko azaroaren 26an, 39/2015 Legearen 57. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak zeudelako.

8.- Hasierako alegazioen izapidea eman zaio ZAEARI, eta, jakinarazi ondoren, azken alegazioen izapidea alderdi guztiei.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Itunaren 66. artikulua ezartzen du Arbitraje Batzordearen eginkizunak honako hauek direla:

“a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zergaren edota Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean auzirik sortuz gero, erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”.

2.- Prozedurak metatzea.

39/2015 Legearen 57. artikulua xedatzen duenez, *“Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.*

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu”.

3.- Aplikatu beharreko arauak:

Ekonomia Itunaren 7. artikulua, eztabaida honi *ratione temporis* aplikagarri zaion 12/2002 Legearen jatorrizko idazketan, lan-etekinengatiko atxikipenen eta konturako sarreraren ordainarazpena arautzen zuen, honela:

“Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) *Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.*

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da,

aurkako frogarik ezean, baldin eta langilea atxikita dagoen lurralde horretan badago”.

10/2017 Legearen bidez egindako aldaketaren ondoren, honela geratu da araututa:

“Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, edo zer tokitan egin diren zehazterik ez dagoenean, uste izango da langilea adskribatuta dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla.

Halaber, telelanaren kasuan ere, eta lanak edo zerbitzuak atzerrian egiten direnean, edo ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan, uste izango da langilea atxikita dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla”.

4.- BFAren jarrera.

BFAk adierazten du enplegatzaileak ez duela inolako kontrolik telelaneko langileek zerbitzuak nondik ematen dituzten jakiteko.

Gaineratzen du Bilboko bulegotik ematen zaizkiela behar diren jarraibideak telelangileei, zeinek, aldizka, enpresari Bilboko lantokiko bulegoetan eman baitizkiote zerbitzuak, enpresaren bezeroei ere Bizkaiko beren instalazioetan eman dizkieten modu berean.

5.- ZAEAREN jarrera.

ZAEAREN iritziz, langileek lurralde erkideko beren etxeetan eman zituzten zerbitzuak, na

hiz eta batzuek adierazi lan-bidaia asko egiten zituztela eta batzuetan bezeroen instalazioetara joan behar izaten zutela lanera.

ZAEAk frogatu du POSSLes-en Bilboko lantokia aholkularitza bat dela, eta haren langile batek ere ez duela zerbitzurik ematen bertan.

6.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

6.1.- Arau-hutsune bat egoteari buruz.

Telelana urrutitik lan egiteko modalitate bat da; haren ezaugarria lan-harremanaren birtualizazioa da, eta horrek langilea libre uzten du leku eta denbora jakin bati lotzetik. Hala, ez du garrantzirik prestazioa materialki non ematen den. Leku hori, gainera, aldakorra izan daiteke, eta horrek zaildu egiten du modu frogagarrian zehaztea zerbitzua lurralde erkidean, foru-lurraldean edo atzerrian ematen den.

Telelanari buruzko 2002ko Europako Esparru Akordioak, 2009an berrikusiak, honela definitzen zuen telelana: informazioaren teknologiak erabiliz lana antolatzeko edo egiteko modu bat, kontratu edo lan-harreman baten esparruan, zeinean enpresaren lokaletan ere egin zitekeen lan bat horietatik kanpo egin ohi baita.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak bere 177. hitzarmenean eta 184. gomendioan arautu zuen etxetiko lana, modalitate hori langilearen etxean edo hark aukeratutako beste lokal batean, enpresaren lan-lokaletatik kanpo, egiten denean gertatzen dela iritzita.

Barne-araudiari dagokionez, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 13. artikulua arautu zuen telelana, lan-jarduera enpresaren lantokian bertan egin ordez langilearen etxean edo berak askatasunez aukeratutako lekuan nagusiki egiten den lan gisa.

Azkenik, 28/2020 Errege Lege Dekretuak, Urrutiko Lanari buruzkoak, zeinetara jotzen baitu Langileen Estatutuko 13. artikulua, Telelana urrutiko lanaren modalitate gisa arautzen du (baliabide informatikoak, telematikoak eta telekomunikaziokoak nagusiki edo eskusiboki erabiltzean oinarritua), eta hau aitortzen du: *“Gaur egun, etxetiko lana baino gehiago, urrunetik egiten den lan malguaz hitz egin behar dugu, lana ingurune berrietan, zeinetan lantokian langilearen presentzia ez den beharrezko, egiteko aukera ematen duen lan malguaz, hain zuzen. Lan-harremanen birtualizazio horrek leku eta denbora jakin batetik bereizten edo deslokalizatzen du langilea.”*

Horren arabera, argi dago Ekonomia Itunak lan pertsonalagatiko atxikipean ordainarazteko eskumena zehazteko erabilitako lotura-puntu nagusia (zerbitzuaren prestazio materialaren lekua) ez dela egokia hura onartu zenean ohikoa ez zen lan-modalitate baterako, hau da, telelanerako.

Hain zuzen ere, ZAEAk eskuratutako probekin ere, ezinezkoa da zalantzarik gabe baieztatzea langileek beren ohiko bizilekuan eman dituztela zerbitzuak, alde batera utzita aipatzen dituzten lan-bidaia ugariak, eta horietako batzuen helburua zerbitzua enplegatzailearen bezeroen instalazioetan bertan ematea dela.

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu arau-hutsune bat dagoela, eta, Auzitegi Gorenak 2019ko urriaren 4ko epaian (ECLI:ES:TS:2019:3144) emandako irizpideari jarraituz, hutsune hori zuzenbidearen interpretatzaileak edo aplikatzaileak bete behar duela.

6.2.- Arau-hutsunearen integrazioari buruz.

Aipatutako epaian Auzitegi Gorenak ezarritako ildo beretik, 10/2017 Legearen bidez egindako Ekonomia Itunaren 7. artikulua erreformak interpretazio-parametro egokia ematen du aurreko ekitaldietarako, haren ondorioak etorkizunari aplikatzeaz gainera.

Hala, langilea atxikita dagoen lantokiaren irizpidea da behar den objektibotasunarekin edo segurtasunarekin ondoen lotzen dena (gogoratu behar da Auzitegi Gorenak nabarmendutakoa: *“Irizpide hermeneutiko oso ziurra da legegilearen jarrera, manua aldatu baitu bertan hutsunea aurkitu duenean”*), eta enplegatzaileak horren beharra du atxikipena egiteko eta atxikitakoa ordainarazpen-eskumena duen administrazioan sartzeko obligazioa betetzerakoan. Lotura-puntua objektibatzeke irizpide horrek segurtasun juridiko hobe ematen du kasu guztietan; izan ere, kasu askotan ezinezkoa izango da lana benetan non egiten den frogatzea, ez baita nahitaez langilearen etxean egingo.

6.3.- Lantokiari buruz.

Lan- eta gizarte-arloko legedian ez dira gauza bera langilearen atxikipen-zentroa eta langileak zerbitzuak emateko eremu geografikoa.

Ohikoa da enpresek, beren jardueraren izaera kontuan hartuta, bulego edo sukurtsalik ez izatea beren jardunerako erabiltzen duten leku bakoitzean, nahiz eta eremu geografiko horretan zerbitzuak ematen dituzten langileak izan, baita eskusibotasun-araubidean ere, eta/edo beste espazio batzuetan ez lehiatzeko betebeharrarekin.

Kasu horietan desadostasuna egotea baimentzen da langileak zerbitzuak ematen dituen eremu geografikoaren eta atxikita dagoen lantokiaren kokapen geografikoaren artean, eta horrek garrantzia izango du eztabaida judizialak, Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua eta abar ebazterakoan.

Hala, langile batek lurralde erkidean eman ditzake zerbitzuak, baina foru-lurraldeko lantoki bati atxikita egon daiteke, edo alderantziz.

Langileen Estatutuaren 40. artikulua onduz, langilearen lantokia izango litzateke bere zerbitzuak eskusibotasunez ematen dituen tokia, eta ez atxikipen-lantokia. Horrela, zerbitzuak emateko eremu geografikoa aldatu gabe atxikipen-zentroa aldatzeak ez lioke eskubiderik emango kontratua bidegabeko kaleratze baten berezko baldintzekin deuseztatzeko.

Hala ere, lan-prestazioengatik atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko, legegileak *“atxikipen-lantokia”* aukeratu du; horrek eskatzen du enplegatzaileak langilea *“atxikitze”* borondatea izatea, eta nahitaez eramaten gaitu lan-kontratuan kontsignatu den eta Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua zehaztuko duen zentrori.

Nahiz eta 28/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulua arabera langileak urrutiko lana egiteko aukeratutako lekua identifikatu behar duen, atxikipen-lantokiaren irizpidea aukeratzen da oraindik lan-prestazioagatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko,

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea lan-etekinengatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena BFari dagokiola, langileak atxikita dauden lantokia haren lurralde-eremuan baitago.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta POSSLri jakinaraztea.